

Feismoa

Joxean AGIRRE

Orain dela pare bat aste aldizkari batek, eta adimen artifizialaren laguntzarekin, Laudio, Beasain eta Barakaldo izendatu zituen EAEko herri itsusien, bat herrialdeko, eta bertako bizilagunak ikusi nituen kexuka Teleberrin eta arrazoiarekin gainera, *feismoa* edo itsustasunaren lanketa, izatez, leku jakin, eraikin edo paisaiaren leku zehatz batzuei buruz hitz egiteko erabiltzen baita eta ez herri oso bat kalifikatzeko. Galizian lanak egin dira *feismoaz* eta hala erabili dela iruditzen zait.

Gure artean *feismoaren* eredu nagusiak baratzeak dira. Badaude baratze ederrak, baita Versaillesen miniaturak diruditenak ere. Askotan egon naiz begira Bermeon, Aritzatxuko hondartzara bidean dauden batzuei. Bertan pozik asko bizitzeko moduko lekuak dira, beren lorategi, igerileku txiki eta guzti.

Baina asko dira itsustasunaren gorazareak diruditenak. Joan den mendearen bigarren zatian etorkin asko jaso zituzten herrietan bereziki multzoak ikus zitezkeen eta ikus daitezke oraindik ere. Baratze horiek birziklatzearen erresumak dira. Somierrak erabiltzen dituzte itxiturak eta ateak egiteko, autoen gurpilak loreontzi gisa eta bainuontziak ura biltzeko edo komun bat ikus dezakezu izkina batean, nik al dakit zertarako. Barruan diren etxoletan denetik ikus daiteke: gorputz osoko ispilu bat aurki dezakezu edo barrunbeak bistan dituen besaulki bat edo hozkailu bat argindarrak gabe, han, ezertarako. *Feismoaren* erreinu horiei begira pentsatu izan dut ez ote diren gizontasunaren gordeleku bilakatu, emakumeak etxeak kolonizatzen joan diren heinean gizonezkoak beren gogora sentitzeko, beren neurrira egindako bizilekuak behar zituztelako.

Zorionez edo zoritxarrez, baratze molde hori desagertzen ari da, baserri atarietako *feismo* kasu larriak desagertzen ari diren bezalaxe. Orain gutxira arte baziren baserriak non traktore zahar bat herdoildurik, arrankatu ezinik geratutako pare bat kamioi zahar eta horiekin batean garbigailu pare bat jartzen zituzten, *feismoaren* museoak balira bezala, eta haien artean bizpahiru kateko zakur eta oilo taldeak bizi ziren.

Feismoa artea izan liteke, itsusia ederra bezain interesgarria eta esanguratsua. Bilboko San Frantzisko auzoko txoko askok Ereagako hondartzak baino zer pentsatu gehiago eman diezaguke. Arkitektura Eskolako gure ikasleek katalogo interesgarriak egin dezakete eta barne turismoa, leku ederrik eder egin beharrean, tarteka itsusitik itsusira egingo genuke eta ez liguke kalterik egingo. •

Aspaldiko lagun berriak

Maddi AIESTARAN

Ez dakit nongo ez dakit ze herrietan, parrandara etorri dira bost lagun; berez elkarrekin egotera etorri dira. Lurrean eseri dira oraintxe, plaza baten erdian. Korro bat osatu dute, belauna belaunaren kontra. Elkar ezagutzera nahi dute jolastu. Ikaragarri maite dute elkar, oso lagun onak dira bostak, udak eta udak daramatzate ia egun oro elkarrekin zukutzen, baina badago zerbait esaten diena elkar nahi dutela gehixeago ezagutu. Ze “ez dakit seguru ahizpa bat duen edo bi neba”, “ez dakit ze harreman duen bere gurasoekin, bere kuadrillarekin”, “nolako den

bere herria”, “zer gustatzen zaion egitea arratsalde libreetan”... Nerabetan alkohol botila artean egiten diren jolas txatxueta nola, elkarri galderak eta galderak eta galderak egin dizkiote. Eta harrizko aurpegia geratu zaie, barre egin dute, serio jarri dira, eta batez ere gustura sentitu dira aspaldiko lagun berrien ondoan, ezagutza-jolasak iritsi izan ez diren tokietara iritsi direlako ezagutza-elkarriketak.

Udalekueetatik bueltan elkarren lagun onenak bihurtzen dira urtero-urtero. Uda bat irauten du intentsitateak. Iraileko azken asterako, bakoitza bere

bizitzara bueltatzen da. Eta hurrengo uztaillean berriz elkarrengana. Mantentzen dute harremana, saiatzen dira planak egiten, egoten dira pare bat aldiz ikasturtean zehar, baina hori: udak mantentzen ditu gertu.

Hala erabaki dutenean, apurtu dute korroa eta tentetu dituzte belaunak. Pixka bat gertuago sentitzen dira elkarrengandik. Polita da sentsazioa. Orain, ez dakit nongo ez dakit ze etxetako ez dakit ze koltxoitan, bostek batera lo egingo dute. Elkarriketek balio baitute elkar hobeto ezagutzeko, baina elkarrekin lo eginez ere estutzen baitira harremanak. •